

OLERKIAK

GARENA GARA

Maite duzuna maite duzula erakustea
maiteminaren zailena.
Maite duzuna maitatzea
gure huts handiena.
Maite duzuna galtzea
egiazko maitasunaren agerpena.
Maite duzunaren desagertzea
maite duzula ez esan izanaren pena.
Hiltzen ari den maiteari hiltzen uztea
maite duzuna, maiteena,
maite ez duzula frogatzea.

Zenbaitek dio
iraganak patua idazten duela,
itxaropenak, ordea,
iraganaren gainean patua
idatziren dugula.
Dena esan daitekeen bizitza honetan,
mintzatzeak dakar damua.
Gure ahotsa nahi da ahaztua.
Gure egia askatzen dugunean
mihia omen dugu mizto,
gure uste ustela kanta ez dezagun,
maitea maita ez dezagun.

Amildegi ertzean,
maitasun galduan,
damuzko barkamena
ez da maitasuna.

Jausitako amodioari
 eskaintzen zaion sakrifizioak
 aldatuko du biziaren norabidea.
 Ibaiek ez baitute inoiz
 ur bera ematen
 eta lohia beraiek emanen baitute.

Iritsiko den maitasun askezko egunari
 itxaropenezko agurra eman bekio.
 Bekatu den maitasuna
 iragan bilaka dadin desira besterik ez baitio.
 Ohorea amildegia ertzean
 maite duzunarekin izatea
 maitatzen egotea.
 Haritzaren ezkurak
 amildegira jaus ez daitezen,
 eta fruituak
 emankorrek izan daitezen
 amildegia estaltzen has gaitezen.
 Maitatzeak
 eta maitearen alboan izateak
 errurik izan ez dezaten.

Norberak daki nor maitatzen duen
 eta maitatzen dituenak galtzeak
 zein indar ken diezaiokeen.
 Beraiek osatzen gaituzte gu.

Patua existitzen uztea
 gure burua saltzea.
 Galdutako itxaropenen suak
 behar du berriz izan piztua.
 Maitatzen dena,
 nahi dena,
 izan ohi da norberaren ukuilu,

gure izan nahi dugunaren koba ilun.
Gai garela sinistea,
garena garela,
izan gaitezkeela
erakustea.

Pixkanaka da koldarkeria,
lortutako hurbilpena
goraipatzea.
Orain da ausardia,
nahiari tinko eusten diona,
maitatzea,
ahazten ez duena.

Etxahun Aurkenerena Arbelaitz
(Urruña)